

56.

zenbakia

2021eko azaroa

debaldeko alea

kotarro

Garean-Jarduerak

LIZARRAN KANTUZ

Abenduak 4, 12:30
Koroatze plazatik

TXOKOLIPUINAK

Azaroak 30, 17:30
Birjine Albira

Urtarrilak 25, 17:30
Izaskun Mujika

Otsailak 22, 17:30
Amaia Elizagoien

Alfonso Ugarte aretoa
(Los Llanos Kulturagunea)

PORROTX ETA MARIMOTOTS

Otsailak 2, 18:00
Los Llanos Kulturagunea

AGENDA

Azaroak 28, 17:00
Diaporama: «Pou: bizitzari sokaz lotua»
Los Llanos Kulturagunea

Abenduak 1,
Liburutegi ibiltaria.
17:00 Alloko liburutegia

Abenduak 3,
Bisita gidatua. 12:30 Karlismoaren
museoa

Ipuin-kontakteta. 17:30. Lezaun
«Printzesa edo igela, zure aukera!»

Abenduak 14, 15:30
Gabonetako eskulan tailerra
Lizarra (liburutegia)

Abenduak 27, 18:00
«Azken eguzkilorea»
familia-antzezlan
Lizarra (Los Llanos Kulturagunea)

Abenduak 29, 17:30
«Aioko», itzal eta txotxongilo
antzerkia
Oteitza (Kultur etxea)

Urtarrilak 15, 20:00
Zetak taldearen kontzertua (15 euro)
Lizarra (Los Llanos Kulturagunea)

Lizarraldea BHI

Institutuan zuzendaritza aldaketa izan da eta lehenbiziko aldiz D ereduko irakasle bat dugu zuzendari.



Haurrak, helduak ez bezala, adinean gora egin ahala gaztetu egiten dira. Eta aldaketak ez dira soilik haien gorputzetan eta izaeran gertatzen, maiz, haien ibilbide akademikoan eta ikastokian ere izaten dira.

Lehen Hezkuntza amaitutakoan, hamabi bat urterekin, landa eskoletako haurrak Lizarrara “jaisten” dira; Remontibalgoek ikastetxea aldatzen dute; Ikastolakoek DBH osoa egin dezakete, baina azkenerako ere ikastetxea utziko dute eta, ondoren, biderik ohikoenak bi dira: Politeknikoa eta Lizarraldea BHI.

Lizarraldea BHIk, edo institutuak, hamabi urtetik aurrera hartzen ditu ikasleak eta DBHko lau mailak eta Batxilergoko biak eskaintzen ditu. Ikasle garraiatuak ditu Urbasa-Andia mendilerroan hasi eta Ebro ibaiaren

ertzerraino, eta autobideari jarraituz, Vianako talaiatik Lorkaraino. Hau da, izena ongi merezia du, Lizarraldea BHI.

Euskararen aldetik, hizkuntza eredu guztiak eskaintzen ditu, baita murgiltze eredu ere, eta horrekin bada pasadizoa: Garesko eskolarekin batera, hau da Iruñeritik hegoaldera ireki zen lehen euskarazko eredu publikoa. Orain 30 urte pasako borrokaren isla dugu hori, eta arrakasta horri tamaina hartzeko, hona bi adibide: Lehena, Tafallan, gaur egun, Haur eta Lehen Hezkuntzan D eredu publikoa izan arren, oraindik ere Iruñera alde egin behar izaten dute Batxilergoa euskaraz egin nahi badute. Eta bigarrena, Elisabeth Eskisabel, lehenbiziko aldiz D ereduko irakasle bat baitugu Institutuko buru.

Elisabeth Eskisabel, Lizarraldea BHIko zuzendaria

*Zuzendaritzaren erronkari heltzeko:
«taldeak ere asko lagundu dit, oso
garrantzitsua izan da elkarlan hori, talde
bat garela sentitzen dut eta horrek
egunerokoan asko lagundu dit».*



Elisabeth Iruñean jaio eta hazi zen eta gaur egun Lezaunen bizi da. Izan ere, ama bertakoa du eta txiki-txikitik herriarekin harreman estua izan du, asteburuak, udak, familia... Euskal Herriko Unibertsitatean Artearen Historia ikasketak egin zituen Gasteizen eta, jarraian, Lezaunera etorri zen bizitzera. Hasieran bestelako lanetan aritu arren, Irantzu monasterioan gidari edo tokiko euskara teknikari kasu, 2008an ekin zion jada bigarren hezkuntzako irakasle izateari. Lehenik beste ikastetxe batzuetan, eta 2010etik Lizarraldea BHIan.

1. Irakasle izatetik zuzendari izatera, Nafarroako ikastetxe handienetako batean. Nolakoa izan da trantsizioa? Zerk eraman zintuen kargua hartzera?

Urte asko daramatzat eskola honetan lanean. 2010etik 2018ra behin behinean aritu naiz eta orduz geroztik, behingoz oposizioa gaindituta, plaza eskuratu nuen. Urte hauetan guztietan zentroa ezagutzeko aukera izan dut eta baita bere dinamikak ere (pentsa, bi zuzendaritza talde ezagutu ditut).

«Nolakoa izan den trantsizioa?», ba egia esan erraz-erraza. Aurreko zuzendariarekin, Toño Rosekin, ikasturte bukaera osoan ibili nintzen lanean. Egia da ikastetxea ezagutzen nuela, baina barne kudeaketa hori ezagutzeko aukera izateak pila bat lagundu ninduen. Eta uztailetik hemen gabiltza.

Trantsizio horretan, taldeak ere asko lagundu dit, oso garrantzitsua izan da elkarlan hori, talde bat

garela sentitzen dut eta horrek egunerokoan asko lagundu dit. Taldea esaten dudanean, ikastetxeko komunitate osoa dut buruan (irakasle, ikasle eta irakasle ez diren langileak ere). Horiei guztiei esker, zuk diozun bezala, Nafarroako ikastetxe handienetako batean lan egitea erraza eta atsegina da.

2. D eredutik datorren lehen zuzendaria zara Institutuan zer esan nahi du horrek? Zerbaitetan nabarituko da?

Bai hala da. Lizarraldea BHIan, D ereduko lehen zuzendaria naiz. Zuzendaritza taldean bost kide gara eta horietatik, 3 gara D eredukoak. Maite Fernandez zuzendari ordea eta Emi Velaz ikasketa burua, D eredukoak eta emakumeak hirurak. Uste dut oso garrantzitsua dela ikastetxearentzat.

3. D ereduko lehen zuzendaria, baina ez lehen zuzendari euskalduna...

Egia da, ni naiz D ereduko lehen zuzendaria, baina duela urte batzuk Pedro Antonak zuzendu zuen eta

A ereduak izan arren, euskalduna da. Maiz gertatu zaigu A ereduak plazetan irakasle euskaldunak egotea. Eta horrek badu isla Institutuko giroan, euskarazko komunikazioa ohikoa eta arrunta izaten da.

4. Zer ekimen bultzatzen ditu institutuak euskararen erabilera handitzeko ikasleen artean? eta irakasleen artean?

Ikastetxeko proiektu linguistikoa ari gara garatzen. Hiru urte daramatzagu lan horretan eta bertan gure hizkuntza aniztasunari marko orokor bat emateaz gain, ikasleek konpetentziak beregana ditzaten ekintzak jasotzen ditugu.

Euskarari dagokionez, ahozotasuna lantzeko jardura gehiago, edo hobe esanda, modu sistematikoagoan ari gara programatzen arlo guztietan. Jardun dozentearen osagarri *Solaskide* egitasmoa dugu aspaldi. AEKko irakasleak etortzen dira astero hainbat taldetan ikastordu bat emateko.

Bestalde, erregistro informalak lantzeko beharra aspaldi antzeman genuela, eta duela urte batzuk hautazko ikasgai bat diseinatu zuen Euskara Departamentuak, *Solasean* izenekoa.

Badugu ere telebista estudio bat zaharberritze prozesuan eta martxan jarri nahi dugu irrati bat ere. Espero dezagun bi proiektu horien bitartez ikasleak motibatuko direla.

Horrez gain, *Idazleak eta Musikariak ikastetxean* egitasmoan parte hartzen dugu eta ekintza osagarrien bidez eskolaz kanpo euskararen erabilera sustatzen saiatzen gara.

Dena den, jakin badakigu eskolak ezin duela lan hau bakarrik egin eta beste eragileen lana zabaltzen laguntzen dugu: Korrika, Garean, Euskaraldia...

Irakasleei dagokienez, ez dugu ezer berezirik egiten. Irakasle euskaldunen artean ohiko harremana euskaraz da; bileretan zailagoa da euskararen presentzia bermatzea, departamentuak arloka baitaude antolaturik, eta ez hizkuntzaren arabera. Baina euskararen presentzia handia da Institutuan.

5. A ereduak euskararen gutxieneko ezagutza bat transmititzen du, baina ikasle ugari ez dute LHtik DBHra jauzi egitean. Zer ekimen bultzatzen dira Institututik eusteko ikasle kopuruari?

Galdera honi erantzuna emateko, kontuan hartu behar dugu zonalde mistoan gaudela eta A ereduaren Euskara ez dagoela ikasgai tronkalen artean (zonalde euskaldunetan bezala); hautazko ikasgaiekin lehiatu behar du, matrikula egiterakoan, hor baitago kokatuta. Horrez gain, hautagai gehienak ez daude gure esku, kurrikulumean datoz diseinaturik. Beraz, familiek matrikula egiterakoan zerrenda luze bat dute aukeratzeko, eta hor Euskara ikasgaia beste bat da, hainbesteren artean. Zaila da hor eragitea.

6. Zeintzuk dira BHIren erronkak epe ertainean?

Digitalizazioa, metodologia berriak, bizikidetzeta, elkartasuna, jasangarritasuna... Proiektu pila ditugu ardatz horien inguruan. Metodologia berriak-eta ezartzeko, *Hezigarri* izeneko programan sartuta gaude, eta uste dugu hezkuntza-inklusioa eta metodologia aktiboek ahozko konpetentzia linguistikoa eragina izango dutela eta euskararen erabilera eskolan sustatzeko baliagarriak izanen direla. Datozen bi urteetan DBH 1 eta 2 ikasmailatan ezarriko ditugu; talde horietako irakasle guztiak daude sartuta, asko dira eta erronka handia da guretzat.



LIZARR
Lorategi mantentze-lanak
LOREZAINNTZA
Valdelobos, 35
31200 ESTELLA-LIZARRA
T. 948 554 067 - F. 948 395 112
M. 606 980 679
lizarrard@hotmail.com



Helbide berria!
ekoLORE
lizarra.com

Mundua deskubritzeko
jostailu eta jolasak

Kale Nagusia, 23 · Estella-Lizarrak · 948 985 306

D ereduaren hastapenak Institutuan

Maite, Ziortza eta Irantz institutuan D ereduari ikasi ahal izan zuten lehenbiziko belaunaldiko kideak dira. Haiekin elkartu gara ezagutzeko nola bizi izan zuten hasiera hura.

INB Estella, Oncineda Institutua, Lizarraldea BHI, hiru izen Institutu baten historiarako. Lizarrako Institutuaren ibilbidea 1975ean hasi zen, diktadorearen heriotza baino 15 egun lehenago. Lizarrako udalak urte eta erdi zeraman Hezkuntza ministerioarekin harremanetan Batxilergoko Institutu publiko bat ezartzeko borondate irmoarekin. Onespena lorturik, berehala abiatu nahi zuten. Institutu berrirako Ontzineda dermioa aukeratu zen eta eraikina altxatu bitartean, kokapen egokia behar zen. Verbo Divinoren egoitzan aurkitu zuten aterpe eta han eman ziren eskolak 3 urtez. 1978an, Ontzinedako eraikina akiturik, hara aldatu zen Institutua.

Artean, baina, ez zegoen Batxilergoa euskaraz egiteko aukerarik, ezta ikaslerik ere. Izan ere, Ikastolak 5 urteko ibilbidea zuen Institutuak bere bidea hasi zuenean.

14 urte pasatu behar izan ziren BBBean (BUP) D ereduari hasiera emateko. Ikastolak bazeraman denboratxo bat eskaera hori egiten eta azkenean lortu egin zen, 1989-1990 ikasturtean hain zuzen ere. Orduan Javier Blanco zen zuzendaria eta hiru irakaslerekin abiatu zen ikasturtea: Bixente Serrano Izco, Ana Isabel Gonzalez San Sebastian eta Sara Perez Garcia. Hiruren artean moldatu behar izan ziren ahalik eta ikasgai gehien euskaraz emateko. Bixentek Euskara, Historia, Musika eta Etika ematen ziren 22 ikasleko talde hasi berriari, Ana Isabellek Natur Zientziak eta Sarak Matematika.

Lehendabiziko promozioiko ikasle horiek 1975ean jaiotako ziren, Institutuaren sorrera urte berean. Haietako batzuekin egoteko aukera izan dugu eta haien oroitzapenak gurekin partekatu dituzte. Diotenez, jakin zutenean euskaraz ikasten jarraitu ahal zutela, arnasa hartu zuten. Ordura arte, institutura

pasatzerakoan, ikasketak gaztelaniaz jarraitu ahal izateko, udan zehar Ikastolan erdarazko prestakuntza jaso behar zuten. Lasaitu ederra eman ziren ikasketak euskaraz segitzeko aukera izateak. Oroitzen dute beraiek ere udan erdarazko prestakuntza jaso zutela, ez baitzen segurua D ereduak aurrera egingen zuten.

Galdetu diegu ez ote zuten beldurrik ikastetxe berri batera joateko orduan, etapa berria hasteko orduan. Ez zutela beldurrik diote, ez zutelako hizkuntza aldaketarik egin behar eta gainera, betiko taldekideekin segitu ahal zutelako. Hasierako urte horretan ikasgela txiki bat egokitu zieten Institutuan, bertze geletatik urrun eta horrek taldea gehiago trinkotzeko balio izan zien. Oso errebindikatzailak ziren eta hizkuntza eskubideak aldarrikatzen zituzten, hasierako urtean ez baitzituzten arlo guztiak euskaraz. Baina ez ziren aldarrikapenean gelditzen, haien arteko komunikazioa euskaraz izaten zen, baita eskolatik kanpo ere. Batez ere hasierako urteetan. Geroago, onartzen dutenez, harremanak zabaldu ahala, gaztelaniara jotzeko joera handituz joan zitzairen. Dena den, belaunaldi hartako kide ugari ez dute hizkuntza ohitura galdu haien arteko harremanetan eta eguneroko bizitzan, eta familia transmisioa ere bermatu dute.

Urte haietako bizipenak, pasadizoak eta mota guztietako oroitzapenak partekatzen eman dugu denbora. Entzuten zuten musikaz, intsumisio mugimenduaz, lehenabiziko maite-kontuez...

Eta nola ez, ezin izan diogu eutsi oraingo gazteekin konparatzeko tentazioari: jokamolde, moda, musika berria... Kanpotik gauzak aldatu direla dirudien arren, gazteek gazte izaten segitzen dute eta balioak ez dira hainbertze aldatu. Ea hizkuntza ohiturak ere ez dituzten bazter uzten... Denon itxaropena da.

Ametsak zoriontze gutuna jaso du Behatokitik

Euskara dela eta, uste baduzu zure administrazioan hizkuntza eskubideak urratu direla, edo zerbitzu pribaturen batean tratu desegokia jaso duzula, eta salatu nahi baduzu, Hizkuntza Eskubideen Behatokira jo dezakezu. Gainera, egoera horren berri ematea errazteko, Akuilari izeneko APPa eskaintzen du erakunde horrek. Baina, kexatu soilik ez, zoriontzeko aukera ere ematen du.

Zer sentitu zenuen Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren gutuna irakurri zenuenean?

Zer sentitu nuen? Ba, batez ere harridura, flipatzen pixka bat, ez nuelako espero horrelako gauzarik. Ez nekien ere Behatokiak horrelako gauzak egiten zituenik, eskertzeko gutunak bidaltzearena. Hurrengo egunean, horren inguruan pentsatzen, puntazo bat da.

Azkenean ez du neurtzen bezeroekin zuk euskara erabiltzen duzun edo ez, kasu puntual bat da, momentu bat, eta honek ez du hori neurtzen. Baina Lizarraldeko euskararen aldeko mugimenduarentzako sari moduko bat bezala hartu nuen. Hemen eta horrela gertatu zen, baina zerbait zabalago bezala ulertzen dut nik.

Nola uste duzu dagoela euskararen egoera Lizarrako dendei eta tabernei dagokionez?

Nik uste dut gero eta gehiago erabiltzen dela, ezta? Gero eta aukera gehiago duzu saltoki eta tabernetan euskaraz aritzeko: Equivalenza, Olgarenea, Ilargi... Azken urteotan aldaketa izan da eta nik uste nabaritzen dela, adibidez, Ikastolaren lana hainbeste urtetan zehar ikusten duzulako hainbat tabernetan zerbitzariak euskaraz badakitela. Hor belaunaldi aldaketa ikusten da.

Gehiagotan jaso izan al dituzu euskarazko zerbitzua emateagatik esker onak?

Ba niri agian ez, baina Ekaitzi (Ametsa Tabernako zerbitzari bat) adibidez, egun batean bizkaitar batek-edo esan zion harritu ziola Lizarran euskaraz aritzeak. Batzuetan, ez dakit kanpotik nola ikusten

gaituzten, hau beste mundu bat dela, eta ez dute espero hemen euskaraz egiten denik. Hau euskaratik urrun dagoen gune bat izango balitz bezala. Niri horrela esker onik zuzenean ba ez dakit eman didaten, baina nabaritzen da askotan jendearen keinuetan eskertzen dutela. Ez dizute esaten: «Joe ze ondo euskaraz zerbitzatu didazula!». Baina beste modu baten bidez agian bai eskertzen dizutela.

Zeuk ere eskertzen al duzu bezeroek euskaraz egitea?

Flipas! Nik oso ongi hartzen dut, gustatzen zait. Gu saiatzen gara keinu bat egiten, adibidez norbait sartzen denean “Aupa!” batekin hasten zara, edo lehenengo hitza euskaraz bota. Bezeroa eroso sentitu dadin saiatzeko pixka bat. Eta nik asko eskertzen dut hori, bai, horretarako gaude.





Foto-inkesta

«Euskara maitatzen hasteko hitzak» erakusketa izan dugu ikusgai Villatuertan. Aitzakia horrekin:

1. Euskarazko hitz bat aukeratu beharko bazenu, zein aukeratuko zenuke? Zergatik?
2. Hitz hori euskal jatorrikoa dela uste duzu, edo beste hizkuntzaren batetik dator? Zergatik?
3. Zure ustez, beste hizkuntzetatik maileguan hartutako hitzek euskara pobretu edo aberastu egiten dute?



Markos Napal

1. *Musu-truk*. Pentsatu nahi dut euskarak bakarrik duen hitz bat dela. Itzultzerakoan dohan bezala itzultzen da baina hitzak duen konnotazio propioa galtzen da bidean.
2. Bai. Ez fonetikoki ez esanahiari dagokionez ez dauka antzik erdarako hitzekin.
3. Pobretu ez, nahitaezkoa bezain naturala da. Hizkuntza guztiek hartzen dituzte hitzak maileguan, eta *kapikua* bezalako hitz batek, adibidez, ez du inolaz ere hizkuntza bat pobretzen.



Xabi Iabon

1. *Bastart*. Gaur egun kontrako esanahia ematen ahal diogulako, beti izan duen esanahi peioratiboa bazter utzirik. Hona eskaintzen ahal dizkiogun bide berriak: «purutasun»etik kanpoko izakia, hibridaziotik eta probokaziotik hurbilago dagoena; konformagaitza izaten ahal dena egungo sistemarekin.
2. Ez da euskal jatorrikoa. Hipotesi nagusiaren arabera, germaniko zaharretik omen dator: *Bansti* hitza erabiltzen zen gure *bihitegia* adierazteko, erran nahi baita, halako lekuetan sorturiko umea izendatzeko erabiltzen zen *bastart*.
3. Aberastu egiten dute, inolako zalantzarik gabe. Eta ekarriko dut gogora Andu Lertxundik berriki erabilitako metafora: *ezpala vs. mundua*. Euskara, bere txikitasunean, ezpal gisa irudikatu behar dugu, baina mundu oso baterako lekua duen ezpal gisa.



Itsaso San Martin Casanellas

1. *Maite*. Oso polita iruditzen zaidalako, goxoa, ...
2. Euskal jatorrikoa dela uste dut. Oso gurea delako. Inguruko hizkuntzetan hori adierazteko ez delako antzeko hitzik erabiltzen.
3. Biak. Beharrezkoak dira teknologia berrietan euskarak ez duelako halako hitzik, baina erabilerak erdal kutsua ematen dio batzuetan.



Garazi Urabaien

1. Asko dira gustuko ditudanak, zaila da aukeratzea...momentu honetan hauek dira burura datorzkidanak: *txitxiburduntzi*, *pinpilinpausa* eta *itzulipurdi*. Haien soinua dibertigarria eta samurra da, jolasteko gogoia eta poza eragiten didate.
2. Printzipioz euskal jatorrikoak dirudite. Izaera onomatopeikoa, R-a eta txistukariak euskararen osagaiak dira... haien soinua euskalduna da! Baina, batek daki!
3. Maileguak hizkuntzaren eboluzioaren parte natural bat bezala ikusten ditut, askotan hizkuntza bera arintzen dute. Baina tranpa bat egon daiteke, mailegu gehiegi erabiltzen direnean hizkuntza zakartzen da haren armonia galduz. Oso desatsegina egiten zait orain ingeleseko hainbeste hitz erabiltzea modan egotea.

LIBRERIA-PAPELERIA

INO

LIBURUDENDA-PAPERDENDA

Zapateria Kalea, 3
Tel. 948 550 383 • ESTELLA-LIZARRA



ASTARRIAGA


GRAFICAS

Pl. Zugarraondoa, 6 • ABARZUZA • 948 520 138



denborapasak

Gurutzagrama



Ezker eskubi


- 2- Lurrintsua.
- 3- Irakurtzeko.
- 5- Eguberrietan aitari.
- 6- Edonori edonoiz.
- 7- Andregaiari edo senargaiari.
- 8- Gaizki portatu denari.

Goitik behera

- 1- Kirolariari.
- 4- Betiko omen da.

Euskal glifoa

Kirola



Bertso zutabea

Egilea: **Cesar Etxeberria**

Doinua: «Nafarroako mendi gainetan»

1. Urriko azken asteburua ta ni jarri naiz alerta gustoko ez dudan tradizio bat garai hontan dator eta halloween dela uste al duzue? ez, keba, ipini arreta neri beldurra ematen didana da orduaren aldaketa.

2. Larunbatean betiko plana hau da, gaupasa tipika "ez gara irtengo" esan ondoren ohera ordu txikitan... begia ireki astelehenean altxa presaka korrika baina lantokira iristean oraindik dago itxita.

3. Irekitzeko momenturako orubete falta dela hobe ondoko tabernan sartu ta hartu kafe epela urtero berdin, ez dut ikasten beti nahasten naizela ta ziur berriz hurrengo urtean errepikatuko dela.

Agenda:

Feriak eta Foru zubia hemen dira

Lizarrako ganadu feriak eta Nafarroako Foru Zubia hemen dira, azaro amaiera eta abendu hasiera bitartean ugariak dira planak. Hala, Mendizale Elkartek VIII. mendi astea antolatu du eta ekitaldietako bi euskaraz izan dira: **24an Alpinismoa Ecrins Alpeetan: abentura baten autokritika** eta **28an Pou: bizitzari sokaz lotua**.

Garean eskutik, azaro erdialdean *Buah Txabal!* bakarrizketa umoretsua antolatu zen eta 30ean ikasturteko bigarren **Txokolipuinak** saioa Alfonso Ugarte aretoa 17:30ean. Halaber, abenduaren 4an **Lizarran Kantuz** izanen da, oraingo honetan Koroatze Plazatik 12:30ean abiatuta.

Karlismoaren Museoak ere Euskararen Nazioarteko Eguna probestu du erakusketa iraunkorrera bisita gidatua eskaintzeko, abenduaren 3an 12:30ean. Behin Gobernadorearen jauregian sartuta, zergatik ez probestu eta aldi baterako erakusketa ere bisitatu? *Argia ilunantzean. Osasuna eta humanitarismoa gatazka belikoetan. XIX. eta XX. mendeak.*

Lizarratik kanpo, baina hurbil, badira ere proposamen ederrak. Hala, Euskarabideak *Gora Gora Fest* kultur programazioa antolatu du garai honetarako: abenduaren **1ean, Aloko liburutegian, Liburutegi ibiltaria**: ipuin-saioa, irakurketa... eta **3an Lezaungo eskola zaharretan Printzesa edo igela, nire aukera!** ipuin-saioa 17:30ean.

Eta, Gabonei begira, **abenduaren 14an Lizarrako liburutegian eskulan tailerra** izanen da, 5 eta 10 urte bitarteko haurrek Gabonetako txartelak sortuko dituzte grabatu-birziklatze teknikarekin, etxeko zuhaitzetik zintzilikatzeke. Beharrezkoa da alde zurretik izena ematea.



kotarro

56. zenbakia

Zapateria, 4 - 4.
31200 Lizarra - Nafarroa

Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:
Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak



Diseinua eta maketazioa:
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007
Ale kopurua: 700



paper birziklatua

Nafarroako  Gobierno
Gobernua  de Navarra



Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluak edukinaren ardurarik Garean Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean, autoreena baita.